

**Selektibitatea 2002**  
**Euskara eta Literatura (Azterketa / UZTAILA)**

“Bizi-itxaropena mugara iristen ari al da?” Galdera honekin hasten dute Jim Oeppen eta James W. Vaupel ikertzaileek duela aste batzuk *Science* aldizkarian argitaratu duten demografiari buruzko artikulua. Beren ondorioak honela laburbiltzen dituzte: "Askok hala uste dute, baina datuek besterik erakusten dute". James W. Oeppenek Populazioaren historia irakasten du Cambridgeko Unibertsitatean; James Vaupel, berriz, Max Planck Demografia Institutuko kidea da.

Hona hemen lehen datua: bizi-itxaropena urteko hiru hilabete igo da azken 160 urteetan, bizi-itxaropen handiena duten herrialdeetan. 1840an Suediako emakumeek 45 urteko bizi-itxaropena zuten; egun, aldiz, Japoniako emakumeena –berau da handiena– 85 urtekoa da. Munduko bizi-itxaropenaren batez bestekoa, berriz, bikoiztu<sup>1</sup> egin da azken bi mendeetan: 25 urte eskasetatik gizonetan 65 eta emakumeetan 70 urtera pasatu da.

“Bizi-itxaropenaren gorakada izugarria lineala izan da azken 16 hamarkadetan, bai emakumeetan, baita gizonetan ere”, diote harrিতuta Oeppenek eta Vaupelek. “Badirudi bizi-itxaropena ez dela ari mugara hurbiltzen. Muga egongo da”, dio Oeppenek “baina ez dakigu non dagoen. Oraindik ez gara iritsi. Mugatik gertu<sup>2</sup> egongo bagina, Japoniako emakumeen bizi-itxaropena oso motel hasiko litzateke, baina ez da hori gertatzen”.

Oeppen eta Vaupelek aurreikusten dutenez, joera hori etengabekoa<sup>3</sup> da eta, egonkorra denez gero, logikoa litzateke horrela segitzea, hau da, bizi-itxaropena bi urte eta erdi inguru igotzea hamarkada bakoitzean.

Hala ere, betikotasunetik urrun gaudela aitortzen dute. Bizi-itxaropenaren urteroko gorakada apalak ez dira inoiz iritsiko hilezkortasunera<sup>4</sup>. Ehun urte betetzea, ordea, arrunta izango dela diote.

Oeppen eta Vaupelek diotenez, bizi-itxaropenak mugak dituela sinesteak agintarien erabakietan badu eragina, bizi-itxaropenaren aurreikuspenak erabiltzen baitira etorkizuneko pentsioak, osasun laguntzak eta hainbat behar sozial aurreikusteko. Bizi-itxaropenaren urte batzuetako hazkundeak<sup>5</sup> sekulako aldaketak eragiten ditu pertsona zaharren eta oso zaharren kopuruan, etorkizuneko beharrak izugarri handituz. Gaur egungo joerak jarraituz gero, Ameriketako Estatu Batuetako emakumeen bizi-itxaropena 92,5 eta 100,5 urteren artean egongo da 2070ean, Gizarte Segurantzak aurreikusitako 83,9 urteak baino dezente gehiago.

---

1 bikoiztu: bi aldiz handiago egin	4 hilezkor: ezin hil daitekeena
2 gertu: hurbil	hilezkortasun: hilezkor denaren nolakotasuna
3 etengabeko: etenik ez duena, jarraitua dena	5 hazkunde: haztea, handitzea

---

**A. Ulermena.**

1. Erantzun galdera hauei: (2 p.)
  - a. Zein da Oeppen eta Vaupelen artikulua gaia?
  - b. Hilezkortasunera iritsiko al gara inoiz?
  - c. Nolako eragina du agintarien erabakietan bizi-itxaropenaren gorakadak?
  - d. Non dute bizi-itxaropen handiena, Japonian ala Estatu Batuetan?
  - e. Estatu Batuetako Gizarte Segurantzak nolako bizi-itxaropena dauka aurreikusita?
  
2. Azal ezazu zein den testu honen gaia. Egin laburpen bat. (2 p.)
  
3. Eman itzazu beste modu batean testuan ageri diren azpimarratutako esaldi horiek. Horretarako, parentesi artean ematen zaizun hitza (forma horretantxe) erabili behar duzu, esaldia beste modu batera adierazteko. Eta ematen duzun ordainak eta testuko esaldiak funtsean adiera bera izan behar dute (1 p.).
  - a. “*Bizi-itxaropena mugara iristen ari al da?*” Galdera honekin hasten dute Jim Oeppen eta James W. Vaupel ikertzaileek beren artikulua (**den**)
  - b. *Badirudi bizi-itxaropena ez dela ari mugara hurbiltzen* (**dirudienez**)
  - c. *Gaur egungo joerak jarraituz gero, Ameriketako Estatu Batuetako emakumeen itxaropena 92,5 eta 100,5 urteren artean egongo da 2070ean* (**ba...**)

**B. Idazlana. (5 p.)**

Azal ezazu, hogeit hamarretan, bizi-itxaropenean gertatzen ari den aldaketek duzun iritzia: nora goazen, gizartean gertatzen diren aldaketak (zaharrak gero eta ugariago, esaterako), pentsioen arazoa; hirugarren munduan eta lehen munduan gauzak nola diren, eta abar.

**SELEKTIBITATEA**  
**2002ko uztaileko azterketa**

**ERANTZUNAK EREDU GISA**

---

**A. ULERMENA.**

1. ERANTZUN GALDERA HAUEI. (2 P.)

**a. Zein da Oeppen eta Vaupel-en artikulua gaia?**

*Oeppen eta Vaupel ikertzaileen artikulua demografiari buruzkoa da. Eta artikulua horretan gai nagusia bizi-itxaropena da. Izan ere, testuan gai horren inguruan egin dituzten azterketak azaltzen dira, bai eta horri buruzko gogoetak ere.*

---

(Gaia normalean hitz baten, edo sintagma batean laburbiltzen da. Jakina, horrek azalpen labur bat behar luke. Ez da komeni gaia azaltzeko esaldi luze trinko bat asmatzea –normalean txarto egiten da: ulertezina edo akatsez betea–. Ikasleontzat askoz egokiagoa da lehenengo gaia identifikatzea eta, ondoren, azalpen txiki bat ematea, esaldi batean edo batzuetan. Helburua ez da tesia mugatzea. Gaia eta tesia ez dira gauza bera. (Gaia: kontzeptu nagusia. Tesia: ideia edo baieztapen nagusia).

Testu honetan, esaterako, “Demografiari buruzko artikulua” dela idatziz gero, bada, horrek ez dio erantzuten zuzenean galderari. Galdera ez da “Testua zertaz da?”. Zorrotz jokatura, erantzun horrek ez dauka baliorik: 0 puntu.)

**b. Hilezkortasunera iritsiko al gara inoiz?**

*Ez. Autoreek aitortzen dutenez, bizi-itxaropenaren gorakadak ez du esan nahi hilezkortasunera iritsiko garenik. Hala ere, autoreak harrিতта agertzen dira bizi-itxaropenaren gorakada lineala izan delako azken hamasei hamarkadetan, bai gizonen eta bai emakumeen kasuan. Eta oraindik ere igotzen segitzen duela diote. Horregatik, 100 urtera ailegatzea arrunta izango dela uste dute.*

---

(Erantzun oso laburrek ez dute balio. Zuzentzaileek ikasleen euskara maila neurtu nahi dutenez, nahiago izaten dute azalpen apur bat. Ez testu zatiak kopiatzea; baina bai erantzuna apur bat hornitzea, ideia azaltzeko zer baliabide, zer erraztasun edo zailtasun duten konprobatzeko. Galdera bakoitzak 0,4 balio duenez, erantzunak oso kriptikoak badira, zuzentzaileak 0,2 jar dezake, hots, funtsezkoena erantzunda, baina ozta-ozta. Eta apur bat desbideratua bada, 0,1 edo 0. Hobe apur bat luzatzea: zuzentzailea esker onekoa izango da gehienetan.)

**c. Nolako eragina du agintarien erabakietan bizi-itxaropenaren gorakadak?**

*Bizi-itxaropenaren gorakadak garrantzi handia izan dezake agintarien erabakietan. Izan ere, bizi-itxaropenaren aurreikuspenak erabiltzen dituzte hainbat neurri hartzeko; esaterako, etorkizuneko pentsioak, osasun laguntzak edo bestelakoak finkatzeko. Eta bizi-itxaropenaren gorakadak pertsona zaharren kopurua askoz handiagoa izatea ekarriko duenez, bada, agintarien erabakietan zerikusia izango du.*

---

(Baliteke erantzun hori luzetxo izatea. Baina ez dezagun ahaztu zuzentzaileek ikasleen gaitasuna neurtu nahi dutela, ulermen eta adierazpen mailakoa. Galdera hauetan, batez ere, ulermen maila neurtu nahi da. Baina ulermena ez da bakarrik esaldi exaktua jartzea. Azalpen apur bat eman ere lor daiteke. Azterketa hau egiteko ordu eta erdi izaten da, baina ikasle gehienek 40 minututan bukatzen dute. Edozelan bukatu eta kalera. Zuzentzaileek nahiago dute ikasleen ahalegina ere saritu ahal izatea. Esalditxo batekin erantzun nahi bada, gutxi gora-behera, bada ezin da itxaron puntuazio osoa. Puntuaziotxo batekin konformatu beharko.)

d. **Non dute bizi-itxaropenik handiena, Japonian ala Amerikako Estatu Batuetan?**

*Testuan esaten denez, gaur egun Japoniako emakumeek dute bizi-itxaropenik altuena, 85 urtekoa hain zuzen ere.*

*Testuan ez da zehazten zein den gaur egun Amerikako Estatu Batuetako gizon-emakumeen bizi-itxaropen maila. Esaten dena da mundu mailan gizonena 65ean dagoela, eta emakumeen kasuan 70ekoa dela.*

---

(Horrelako erantzun batekin, gorago esan bezala, zera neurtzen da: ikasleen analisi ahalmena –testua ondo ulertu duten ala ez– eta azalpenetarako gaitasuna –ulertu dutena ea behar bezala azaltzen dakiten–: ideia argiak, esaldi antolatuak, lexikoa, egiturak...

“Japonian dute bizi-itxaropen handiena” erantzuteak 0,2ko balioa eduki dezake. Erantzun zuzena da, testua ulertu dela esan daiteke, baina erantzun pobrea da. Zergatik ez erantzun zorrotzago? Esaterako: “Japonian”. Kito.)

e. **Estatu Batuetako Gizarte Segurantzak nolako bizi-itxaropena dauka aurreikusita 2070erako?**

*Estatu Batuetan Gizarte Segurantzak 83,9 urteko bizi-itxaropena dauka aurreikusita 2070. urterako. Baina testuan esaten denez, emakumeen kasuan behintzat, gaur eguneko joerak jarraitzen badu, kalkulu hori okerra izango da. Joeraren arabera, 2070. urtean hango emakumeen bizi-itxaropena 92,5 eta 100,5 urte bitartean egongo da.*

---

(Galdera honen erantzuna txarto jartzeko arrisku handia dago, testua behar bezala irakurri ezean.)

Oro har, 2 puntuko ariketa honetan, galdera bakoitzean dezimaren bat galduz gero, 0,5 gutxiago jaso daiteke. Edo gutxiago. Eta ariketa benetan erraza da. Horregatik, bada, arreta apur batekin eta gogoz ekin behar zaio.

Aurkezpenak ere balio du arean. Izan ere, parte hau izango da zuzentzaileak irakurriko duen lehenena; honekin hartuko du lehenengo inpresioa (positiboa edo negatiboa). Idatzi garbi, utzi margenak, utzi zuri-guneak –ez pilatu lerroak eta esaldiak–. Ikus dadila ondo ariketa bakoitza non hasten den eta non bukatzen den.

2. **AZAL EZAZU ZEIN DEN TESTU HONEN GAIA. EGIN LABURPEN BAT. (2 P.)**

---

(Ariketa honen 2 puntuak zelan banatu ez dago zehaztuta. Baina bi zatiek eskatzen duten lanaren arabera, puntuen banaketa honela egin daiteke: laburpena, 1,5 eta gaiaren azalpena 0,5.)

Ariketa honetan, enuntziatua ondo irakurriz gero, zera eskatzen da: “Azal ezazu... gaia”. Hortaz, ez da nahikoa gaia aipatzea. Azaldu egin behar da.

**Gaiaren azalpena:**

*Testu honen gaia bizi-itxaropena da. Bizi-itxaropena goraka doala azaltzen da, linealki hazi dela azken 160 urteetan, hazten jarraitzen duela, eta ez dela ikusten non egon daitekeen muga.*

*Gainera, esaten da bizi-itxaropenaren gorakada honek eragina izango duela gizartean, pertsona zaharren eta oso zaharren kopuruak gero eta handiagoak izango direlako, Eta, ondorioz, baita etorkizuneko beharrak ere.*

---

Akats arrunta. Testuak bizi-itxaropenari buruz hitz egiten du. Testuak ez du hitz egiten. Hobe moldea hau: testuan azaltzen da, esaten da...

## Laburpena:

Jim Oeppen eta W. Vaupel ikertzaileek Science aldizkarian demografiari buruzko artikulu bat argitaratu dute. Eta horretan bizi-itxaropena mugara iritsi ote den planteatu dute.

Datuen arabera, bizi-itxaropena igotzen ari da etengabe; horrela gertatu da azken 160 urteetan eta igotzen segitzen du, bai emakumeen eta bai gizonen kasuan ere. Mundu mailan, batez beste, gizonena 65 urtean dago eta emakumeena 70 urtean. Eta ikertzaileek aitortzen dute ez dakitela non dagoen muga, bizi-itxaropena maila gorena duen Japonian ere hazten segitzen duelako, moteldu barik. Diotenez, horrek ez du esan nahi hilezkortasunera iritsiko garenik, baina bai pertsonak 100 urtera iristea arrunta izango dela.

Bestalde, datu horiek eragina izango dutela diote, erabakiak hartzeko orduan. Izan ere, pertsona zaharren eta oso zaharren kopuruak gero eta handiagoak izango dira, eta behar sozialetarako aurreikuspen batzuk berriz aztertu beharko dira.

---

(Laburpenaren ezaugarriak, hots, bete beharko liratekeenak:

- Ez dira jaso behar testuko galderak modu zuzenean, hots, komatxo artean.
- Ez da jarri behar “Testu honetan esaten denez...”, ez antzekorik. Hori ez da laburpena, iruzkina baizik, komentarioa. Testutik irten gabe egin behar da, artikuluaren egile bagina bezala, ez kanpoko komentaria bat. Gaia azaldu dugunean kanpotik aritu gara; baina ariketa hau ez da azalpena; hau laburpena da, sintesia, komentariorik gabe.
- Neurrikoa. Testuaren laurdena, edo herena gehienez.
- Garrantzitsua da paragrafoak antolatzea eta ideiei kohesioa ematea, antolatzaileen bidez (*baina, izan ere, horregatik, eta, hain zuzen...*). Laburpena ezin da izan esaldi pilaketa bat. Zentzuz lotu behar dira ideiak, koherentzia batekin.
- Laburpenak ulergarria izan behar du, hots, lehenengo irakurketan ulertzen dena. Horretarako esaldi oso luzeak egitea ez da lagungarria izaten. Are okerragoa da egitura arraroak erabiltzea: *non, zein...* Testua irakurri ez duen edonork ere, lehenengo irakurketan, ondo ulertu beharko luke laburpena. Ulertzeko arazoak baldin badira, txarto. Gutxi gora-beherako azalpenak emateak ez du balio.
- Akatsekin kontuz ibili behar da. Ezin dira txarto kopiatu testuko izenak, esaterako. Eta kontu handiagoa akats gramatikal larriekin. Ariketa honetan hizkuntza mailako kalitatea ere neurtzen da, Idazlanean bezala.

## Idazlana:

---

(Azterketaren balioaren erdia du, eta ez dago kalifikatzeko irizpide jakin bat. Baina zuzentzaileak honako alderdietan oinarrituko dira:

1. Proposatzen den gaiari erantzun zaio?
2. Eskatzen den lerro kopurua bete da? (Gutxiago bada, puntuazioaren erditik behera jartzeko arrazoia izan daiteke).
3. Ideien garapena kohesioz eginda dago (+), ala hainbat ideia bata bestearen ondoan pilatu dira (-)?
4. Testua paragrafoka antolatu da (+), ala dena da lerrokada bat (-)?
5. Ortografia eta sintaxi aldetik (nahiko) zuzena da (+), ala akats larriak eta ugari daude (-)?
6. Ideia landuak, sakonak... jarri dira (+), ala burutazio hutsak, sinpleegiak (-)?
7. Moldez egokia da? Komeni da azalpenetarako 3. pertsona erabiltzea : “gustuak daude”, “batzuek halako musika entzuten dute”... Bestela, plural maiestatikoa: “gustuak dauzkagu”, “batzuek halako musika entzuten dugu”... Bestela, 1. pertsona: “ditut”, “nago”...

**Ez da erabili behar 2. pertsona:** “gustuak dauzkazu”, “iruditzen zaizu garestia dela eta ez duzu erosten”... Horren ordeaz: “norberari komeni zaiona”, “bakoitzak jakin behar du”. Baina ez, “zu”.